

noaua

**Aginaga,
“Oreina” filmaren
agertoki nagusia**





**ONDO PASA
SANTU-ENEAKO
JAIETAN!**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31



SAGARDOTEGIA

Gure Elkartea

Santueneako zaharren egoitza

*Ondo pasa
jaietan
eta ondo jan
gurekin!*

Enkargatzeko!
686 55 41 45




Santuenea 11, Usurbil - @GureElkarteaSantuenea

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2018-19 MATRIKULAZIOA IREKITA

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalarte.eus
www.epalarte.eus



TAILANDIA



NOAOA
BIDAIAK

943 373 613

**BIDAIK
TALDEAN**

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus

Albiste iruditan

Urrian hasiko dira Artzabalgo plaza berritzen

Urrian hasiko dituzte Artzabalgo plaza konpontzeko lanak. Udalak deitutako lehiaketara Imaz S.A. enpresa aurkeztu da. Proposamena ontzat eman du Udalak eta Udalberri aldizkariaren bidez iragarri dutenez, “egun gutxi barru sinatuko dute kontratua Udalak eta enpresak”.

Finantziarioa

Plazako zoladura konpontzeko kostua Udalak bere gain hartuko du, 267.000 euro guztira. Bizilagunek inpermeabilizazio gastuak hartuko dituzte haien gain, 64.000 euro. Hala hitzartu zuten joan den udazkenean Udalak, eta Puntapax kaleko 10, 12, 14 eta 16ko bizilagunek.

Ugartondon eraikitzeaz

Udalberri aldizkarian Udalak berri eman



Udalak 267.000 euro jarriko ditu eta bizilagunek 64.000 euro.

duenez, Jaureguizar enpresak urrian jarriko ditu obrei ekiteko azpiegiturak eta azaroan abiatuko dituzte babes ofizialeko 46 etxebizitza eta beste 46 ta-

satu eraikitze lanak. Obrek bi urteko iraupena izango dute. 2020ko azarorako eraikiak eta bizitzeko moduan behar lukete etxebizitzok.

Laburrean

Udako langabezia datuak

239tik 234ra murriztu zen langabetu kopurua uztailan, abuztuan 236ra igo zen. Usurbilen, emakumezko langabetu gehiago egoten segitzen du: 134 emakume eta 102 gizonezko langabetu abuztuan.

1946an jaiotakoen bazkaria

Urriaren 21ean bilduko dira Antxeta jatetxean. Izen emateko deitu aurrez, urriaren 14a baino lehen, Laurok liburu dendara edo 943 363 448 telefono zenbakira.

Udajolaseko argazkiak

Argazki bilduma eskatu duzuenontzako oharra: Argazkien CD-ak prestatzean jarriko gara zuekin hartuemanetan, NOAUA!ren egoitzara jasotzera etor zaitzen. CD bakoitzaren prezioa, euro bat.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaidea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaUA.eus // www.noaUA.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldia, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Luis Aranalde

Taburik gabe

Sexua, drogak, abortua, antisorgailuak, menpekotasun klase guztiak, esplotazio laborala, LGTB (lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak) kolektiboaren egoera eta beste gai batzuk aztertuko dituzte datorren hilean Vatikanon egingo den gazteen Sinodoan. Jakina, gazteak ez dira joango batzar horretara, ez dute ezer pintatzen eta, baina gazteekin landu dute alde aurretik mundu osoko Gotzainek Sinodoan aztertuko duten dokumentua. Txostenaren izenburua da: “gazteak, fedea eta bokazio azterketa”. Dirudienez, gazteen ekarpena oso zabala eta aberatsa izan da.

Vatikanoak bidalitako galdeketa ez ziren aipatzen sexua eta drogak, baina gazteek garbi hitz egin dute gai horietaz eta argibide ugari aurreratu ere. Orain Vatikanoa beharturik dago LGTB erabiltzera bere terminologian. Ez da txantxetako aldaketa hori; Vatikanoko dokumentuetan lehen aldia da agian.

Elizaren kritika eta aitor-

pena: gazteriaren egoerari buruz Elizak egiten duen diagnostikoan badaude zenbait kritika, adibidez, gazteen jarraera erasokorrek, afektibitatearen heldutasun falta, internetik menpekotasuna...

Testuak aitortzen du baita ere, gazte askok ez duela jarraitzen sexualitateari buruz Elizak ematen dituen orientabideak. Sinodo horretan askoz libreago hitz egin behar omen da gai honetaz eta aurre-juiziorik gabe. Gai horien artean daude: homosexualitatea, antisorgailuak, abortua, elkar bizitza eta ezkontza. Arlo honen baitan sartzen dute gaztetxo eta gazteei ematen zaien katekesiaren edukia eta metodoen berritzea. Sinodo honen helburua ez da erantzunak ematea gazteek guztiei, baizik ikustea zein pauso eman behar diren gazteen desirerantz ahal izateko.

Gazteek zer diote eurek bizi duten egoerari buruz? 16 urtetik 29ra arteko gazteek diotenez sekulako arazoak bizi dituzte ezberdintasun sozial eta ekonomikoak direla eta. Desberdintasun horiek

gazte asko kriminaltasunera eta droga menpekotasunera daramatzatela diote, lurralde askotan oinarritzko libertate eza ere azpimarratzen dute. “Bazterketaren kultura” (Aita Frantziskoren la “cultura del descarte”) salatzen dute; langabezia, pobrezia eta marjinazioaz kezkatzen dira. Lan aukera falta eta behin-behinekotasuna kritikatzeko dute. Gabezia hauek guztiek anestesiatu egiten omen dute adin horretan “hain maite duten utopia”.

Gaurko gazteek Elizari eskatzen diotena: landu duten dokumentuaren arabera, Elizak bat egin behar luke gizarteak baztertzen dituen guztiekin eta ustelkeria guztietatik urrun ibili. Edonoren askatasuna errespetatzen jakin behar du. Elizak izan behar luke komunitate gardena, harreratsua, zuzena, erakargarria eta alaia. Gazteak eskandalizatuta daude Elizan agertu diren pederastia kasuekin; lehenago nahikoa ez eta orain Alemanian agertu da pederastia kasu piloa. Askoren ustez icebergaren punta besterik ez da orain arte azaldu den guztia. Gazte askorentzat elizak

sinesgarritasun guztia edo ia osoa galdu du.

LGTBk adierazi duenez, ez dira onartuak Elizan; baztertuak eta gutxietsiak sentitzen dira. Horregatik parrokietatik, elizetatik, kristau komunitateetatik aldentu egin dira. Beren eskakizun nagusienak dira:

A- Elizak aitortzea kristau elkartearen parte direla eta fedea bizi daitekeela kolektibo horretakoa izanik.

B- Elizaren laguntza eskatzen dugu LGTB fobia klase guztiak desager daitezen. Gure aldeko apustu sendo bat eskatzen diegu Elizaren arduradunei.

Gai hauetan aditu diren batzuek diotenez, sexualitateari buruzko dotrina ez da aldatuko Sinodoaren ondoren. Harreman homosexualak, ezkontza aurreko erlazio sexualak eta abar bekatu izaten jarraituko dute Elizako hierarkiarentzat. Niretzat, Sinodo honen alderdi baikorra: orain arte gai tabu izan den sexualitateaz garbi hitz egin dela Vatikanon mailan. Ba zen garaia, alajaina. Aleluia!

Maialen Unanue

Garazi Lizaso Manterola

Aritz Gorriti

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Luken Arkarazo

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Ahobizi eta Belarriprest guztiok, izena eman Euskaraldian

Heldu da Euskaraldian eskuhartzen hasteko garaia. Ostegun honetan, irailaren 20an zabalduko da euskararen erabilera areagotzea helburu duen ekimenean izen emateko garaia. Gogoan izan, bi modutan parte har dezakezu Euskaraldian, Ahobizi edo Belarriprest gisa. Batean edo bestean, aktiboki parte hartuko duzue Euskaraldian:

■ **Ahobizi:** ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet. Horretarako, euskara hitz egiten jakin behar da.

■ **Belarriprest:** egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut. Kasu honetan, euskara ulertu behar da.

Erronkak

16 urtetik gorako herritar orok



Euskaraldian izena emateko epea ostegun honetan zabalduko da.

parte har dezake. “Bakoi-tzak bere inguruan, bere ohiko harreman sareetan egitea proposatzen dugu: familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan...”.

Helburuak

■ Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertiak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.

■ Euskal Herrian euskara uler-

tzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabeaztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikusaraztea.

■ Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagundua- go egitea.

■ Euskara erabiltzeko testu- guru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.

Datozen deialdiak

Irailak 20, osteguna

Euskaraldian izen emateko epearen irekiera. Paperez egin nahi dutenek, eskuragarri izango dituzte NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Potxoenean, Euskaraldiko partaide diren elkarteetan eta kalean jarriko den mahaian.

Irailak 23, igandea

Arratsaldean, Euskaraldian izen emateko mahaia Santueneko jaietan, Eli eta Patxirekin.

Irailak 24, astelehena

18:00 Euskaraldia prestatzen segitzeko batzarra Potxoenean.

Irailak 26, asteazkena

18:00 Herri eragileetako ordezkari-ekin batzar irekia Potxoenean.

Informazio gehiago:

Facebook: Euskaraldia Usurbil
Twitter: @EuskaraldiaUsur
Youtube: Euskaraldia Usurbil
E-posta: usurbil@euskaraldia.eus
Antolatzailea: Euskaraldia Usurbil.

Ika-mika

Euskaraldia, eguneroko konpromezua

Uztailaren 24ko osoko bilkuran Usurbilgo udala osatzen dugun zinegotziok aho batez onartu genuen Euskaraldiarekin bat egitea. Akordio honek udalgin- tzan gauden guztiok konprometitzen gaitu eta aldi berean gutariko bakoitza “ahobiziak” edota “belarriprestak” izatera gonbidatzen gaitu. Bakoitza bere hizkuntz ahalmenarekin, bakoitza bere askatasunarekin.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, ahal dugun guztietan eus- kara erabiltzeko konpromezua hartu dugu. Euskaraldia 11

egun izango dira. Usurbilda- rrok aurrez aurre dugu gure hizkuntzaren erabilera norbe- raren egunerokotasunean eta harremanetan areagotzeko aukera. Ni, beste askorekin batera “ahobizi” izango naiz. Ulertzen duenari euskaraz egingo diot nahiz eta erantzun- a erdaraz jaso. Berak ulertuko diit eta nik ulertuko diot. Beste batzuk “belarriprest” izango dira, beraiei euskaraz hitz egi- tea eskatuko dutenak nahiz er- daraz erantzun. Baina guztion konpromezua izan behar du Euskaraldia partekatzea. Ezin- bestekoa da.

Ekimena urrats berri bat da. Aurretik, azken hamarkadetan, gure aurrekoek ildo berean eta etenik gabe eman zituz- ten urratsei gehitzen zaiona. Gogoan ditut egoera zailago- tan eta euskara ez menderatu arren, gure hizkuntzaren alde- ko apustua egin zutenak bere seme alabak euskaraz hasi eta hezteko. Benetako konprom- ezua, egunez egun, urtez urte bete izan dutenak. Begiratu bestela urtero euskal hezkun- tza sistemak euskaraz ikastea- ren aldeko ereduak adierazten dituzten zifrak.

Gure herrian irailaren 19an

“Euskaraldia zergatik eta zer- tarako” solasaldia 19:00etan Potxoenean izango dugu eta 20an zabalduko da parte har- tzeko izen emate epea. Erra- za da, aski da euskaraz hitz egitea edota ulertzea eta 16 urte baino gehiago izatea. Gu “ahobizi” eta “belarriprest” izango gara ekimenean eta Euskaraldia gure bizitzako eguneroko konpromezu bi- lakatzeko nahi genuke.

Josune Urkola,

EAJ-PNVko udal taldeko bozeramailea

Usurbilen ospatuko da Euskal Herriko

IV. Sagardo Txapelketa Herrikoia

Udazkenera atzeratu duten Usurbilgo 6. Sagastiak Loretan zikloa nazio mailako hitzordu batek borobilduko du aurtengoan; Euskal Herriko 4. Sagardo Txapelketa herrikoia.

Herriak, sagardo zaleek izango dute hitza eta erabakia irailaren 29an frontoian ospatuko den afarian. Jada laugarren ediziora heldu eta finalaurrekoen fase betean den ekimen honekin garai bateko ohitura indartzen ari da ilusio handiz Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea. “1967tik aurrera zenbait txapelketa herriko antolatu baitzituen orduko sagardogileen elkarteak, herri desberdinekin elkarlanean, eta sare hori berreskuratzea da asmoa. 2015eko txapelketa lehen harria izan zen, eta ordutik sistema hobetuz eta herri zein herriar desberdinak sagardoaren inguruan elkartuz lanean dihardugu”.

Txapelketaren izaera herrikoia azpimarratu beharra dago. Azken hitza saioetara afaltzera doazen herritarrek izaten baitute. Saio guztiotan bertaraturiko herritarrak ari izen dira epaile lanetan. “Euskal Herriko Sagardotegietako sagardoak afaltzera inguratzen diren guztien artean dastatu eta puntuatuko dira”.

Guztira, 19 herrietako 41



Lehiaketan dira Aginaga, Araeta, Astiazaran eta Urdairako sagardoak.

SAGARDO TXAPELKETA HERRIKOIA

**“Azken hitza
afaltzera doazen
herritarrek izango dute”**

sagardotegi ari dira lehiatzen. Afaltiarrek otordua dastatzen hasi orduko sagardoa mahaira zerbitzatzen hasiko zaie eta “jendeak lote bakoitza puntuatu behar izango du 5-10 tartean, momentuan iruditzen zaionaren arabera”.

Bertako produktudun afaria

Edariarekin batera, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarateak, Basatxerri eta Lurlan Elkarateak duten elkarlanerako proiektuan oinarrituta, bertako produktuekin sukaldaturiko afaria dastatu ahalko dute. “Sagardoarekin egoki ezkonitzen diren plater desberdinak”,

antolakuntzaren esanetan.

Azken unera arte, finala igaro arte sekretupean joango da guztia. “Ez da jakingo zein sagardotegietako sagardoa dastatzen ari diren mahaiki-deak. Finalaurreko bakoitzeko lehen bi puntuazio altuenak dituzten sagardotegiak automatikoki pasako dira finalera, eta gainontzeko sagardoak puntuazioaren arabera, hurrenez hurren. Finalaren ondoren bakarrik jakingo da finalistak zein izan diren eta zein puntuazio lortu dituzten”, antolatzailerek iragarri dutenez.

Sagardo Txapelketa Herrikoian parte hartzera animatzen dute. “Afaltzera eseri eta mahaira ateratzen duten sagardoari zure gustuen arabera 5-10 tarteko puntuazioa ematea, ez beste! Beraz, sagardoak dastatzea eta ongi jatea gustuko baduzu, hau da zure txapelketa!”.

19 herrietako 41 sagardotegi lehian

- 1-Aburuza (Aduna)
- 2-Aginaga (Usurbil).
- 3-Akarregi (Hernani).
- 4-Alberro (Hernani).
- 5-Alorrenea (Astigarraga).
- 6-Añota (Azpeitia).
- 7-Araeta (Zubieta).
- 8-Astarbe (Astigarraga).
- 9-Astiazaran (Zubieta).
- 10-Beltzenia (Urruña).
- 11-Bereziartua (Astigarraga).
- 12-Calonge (Igeldo).
- 13-Eguzkitza (Tolosa).
- 14-Elutxeta (Urnieta).
- 15-Etxeberria (Astigarraga).
- 16-Eula (Urnieta).
- 17-Gaztañaga (Andoain).
- 18-Goikoetxea (Lizartza).
- 19-Iparragirre (Hernani).
- 20-Irigoien-Herrero (Astigarraga).
- 21-Itxas Buru (Hernani).
- 22-Izeta (Aia).
- 23-Larrarte (Astigarraga).
- 24-Larre Gain (Hernani).
- 25-Lizeaga (Astigarraga).
- 26-Oianume (Urnieta).
- 27-Oiarbide (Astigarraga).
- 28-Oiharte (Zerain).
- 29-Ola (Irun).
- 30-Olagi (Altzaga).
- 31-Ordo-Zelai (Oartzun).
- 32-Otsua-enea (Hernani).
- 33-Petritegi (Astigarraga).
- 34-Rezola (Astigarraga).
- 35-Rufino (Hernani).
- 36-Saxota (Aia).
- 37-Setien (Urnieta).
- 38-Tximista (Ordizia).
- 39-Urdaira (Usurbil).
- 40-Uxarte (Zornotza).
- 41-Zabala (Aduna).

Finala, irailaren 29an Usurbilgo frontoian

Azken finalaurrekoak

Aurreko finalaurrekoak: Beasainen, Goizuetan eta Oñatin.

Azken finalaurrekoak:

- Irailaren 21ean 20:00etan Oñatiko Larringain Elkartean.
- Irailaren 22an 20:00etan Urdairako Batzokian.

Final handia Usurbilen

- Eguna: irailak 29, larunbata.
- Ordua: 20:00.
- Tokia: frontoia.
- Bertako produktuekin sukaldaturiko menua:
 - Basatxerri lontxeatua: basatxerri urdaiazpikoa eta txorizkoa.

-Entsalada: letxuga, tomate, tipulina, oilaskoa eta arrautza egosia.

-Ajoarrieroa: bakailao ajoarrieroa tenperatura baxuan egositako arrautzarekin.

-Txuleta: txuleta parrillan erretuta.

-Postrea: Idiazabal gazta sagar

dultzearekin.

- Prezioa: 32 euro.

Txartelak salgai:

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartera deituta (943 33 68 11) edo info@sagardoa.eus helbi-dean.



USURBIL

SAGARRAREN BIHOTZA,
SAGARDOAREN KULTURA

2018
IRAILA-ABENDUA

IRAILEKO EKITALDIAK

VI. SAGASTIAK LORETAN

23 IGANDEA BERTSO IBILALDIA

Oihana Iguaran eta Andoni Egaña
11:00 Zubietako Hipodromoan
Usurbil eta Zubieta inguruan ibilbidea,
sagastiak ezagutuz bertsolarien eskutik.
Ondoren mokadua Iruin Sagardotegian.

24-30 Sutegiko erakusleihoan
Sagar eraukusketa iraunkorra
Sagardotarako erabitzen ditugun 115 barietateen artean aukeraketa ikusgai.

25 asteartea 19:30 Sutegin
Usurbil eta Sagardoaren historia
Xabier Alberdi historialariaren eskutik.

26 asteazkena 19:30 Sutegin
Sagar dastatzea Jakoba Errekondo
eta Gabriel Durrutyren eskutik.

27 osteguna 19:30 Aitzaga elkartearen
Sagarrari sukaldea dario
Dani Lasa sukaldari ikertzailearen eskutik.

28 ostirala 19:30 Sutegiko auditorioan
Sagardoaren bidegile
Dokumentalaren proiektzioa.

29 LARUNBATA 20:00 Frontoian

Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa herrikoia
Usurbil herria eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteen eskutik. Afalduz, Euskal Herriko beste herrietan sailkatu diren 12 sagardo dastatuko dituzu, eta norberaren iritzia araberak erabakak da zien denaurtengo txapelduna.

Txartelak salgai: Txiriboga, Artzabal, Bordatxo, Alkartasuna, Astiazaran eta Gipuzkoako Sagardogile elkartearen.
943 33 68 11 - info@sagardoa.eus

Urbil-Usurbil KE taldea martxan da



Usurbil KE eskubaloï taldeko senior mailako nesken babeslea izango da Urbil. Saltokiak 18. urteurren festa ospatu zuen aurreko larunbatean eta bertan egin zen taldearen aurkezpen ofiziala. Lehen partida urriaren lehen asteburuan jokatuko dute.

Aurrendenboraldia amaitzear da eta denboraldiari ekiteko gogoz dira. Urriaren lehen asteburuan jokatuko dute lehen partida ofiziala. Iaz ez zen senior talderik osatu baina aurten Usurbil KE-ren nesken taldea senior mailan lehiatuko da berriro.

Pasa den larunbatean, festa giroa nagusi zen Urbilgo parkingean. Karpa batean egin zituzten 18. urteurren ospakizunek ekitaldi denak. Tartean, Usurbil KE eskubaloïko senior neska taldearen aurkezpena. Nerea Alias ETBko aurkezleak gidatu zuen ekitaldia.

Javier Colorado: “Urruti iritsi daitezela Usurbil KE eta Urbil”
Lehen hitzak Javier Colorado Urbilgo gerentearenak izan ziren. Eskerrak eman zizkien bertaratu ziren denei. Jokalariari zuzenduz, desio bat par-

**JAVIER COLORADO,
URBIL SALTOKIA**

**“Zuen ahaleginarekin,
urruti iritsi daitezela
Usurbil KE eta Urbil”**

tekatu zuen: “Zuen ahaleginarekin, urruti iritsi daitezela Usurbil KE eta Urbil”. Segidan, Urbil-Usurbil KE taldearen kamiseta bana eman zien jokalariei.

Iñaki Etxebarria:

“Gazteagoentzat eredu zarete”

Iñaki Etxebarria Usurbil Kirol Elkarteko presidentek esker senior nesken taldea osatu ahal izan delako. Jokalarien jarrerarekin pozik azaldu zen Usurbil KE-ko presidentea: “Neskak zoriondu nahi ditut, baita Mikel entrenatzailea ere, egiten ari diren lanarengatik eta azaldu duten konpromisoarengatik. Horrela jarraitu.

Neska eta mutil, atzetik datozen gazte guztientzat eredu zuek zarete-eta”.

Usurbil KE senior taldea

Jokalariak: Nahia Arbizu, Eider Makazaga, Malen Azpiazu, Enara Eizagirre, Leire Orbegozo, Ane Irazabal, Goreti Otegi, Amaia Arruti, Oihana Unanue, Aitana Iraundegi, Irati Oiarzabal, Ane Lertxundi, Jone Al-duntzin, Elene Rekondo, Ametsa Furundarena.

Entrenatzailea: Mikel Alzaga.

“Kirola ez dadila umeen kontua bakarrik izan”

Xabier Arregi alkatea eta Josune Estella zinegotzia eskubaloï taldearen aurkezpen ekitaldian izan ziren. Alkateak egindako ahalegina aitortu zion taldeari eta eskerrak luzatu zizkion Urbili,

“gure senior mailako nesken eskubaloï taldea laguntzearengatik”. Kirola praktikatzeko adina luzatzearen garrantzia ere azpimarratu nahi izan zuen alkateak. “Zenbaitetan iruditzen zaigu kirola ume

gaztetxoek kontua dela baina baliabideak jarri behar dira kirola ez dadin umeen kontua bakarrik izan. Gerora eta ahal dugun neurrian, denok kirola praktikatzeko aukera izan dezagun”.

Imanol Agirretxe: “Zoriontsu egin nauzue”



Realak egin zion omenaldiaren ondoren, Saizar Sagardotegian batu ziren Imanolen etxeokak, lagunak eta Agirretxe Taldekoak. Argazkia: Ibai Arrieta.

Lesio bat medio, Imanol Agirretxe aurrelariak erretiroa hartu behar izan du. Zaletuen aurrean agurtu zen, Anoeta estadio berrian, Reala eta Barcelonaren arteko norgehiagokan.

Familiarekin zelairatu zen Imanol. Eta eurekin batera, Jokin Aperribay Realeko presidentea eta Jesus Mari Satrustegi aurrelari ohia. Aperribayk urrezko intsignia oparitu zion eta Leo Messi Barcelonako kapitainak Camp Nou estadioa irudikatzen duen oroigarri bat. Segidan, Anoetan bertaratu ziren guztiei hitz batzuk eskaini zizkien Agirretxek: “Eskerrik asko realzale guztiei, Jokini egun hau hain berezia egiteagatik, Satrusi hemen egoteagatik eta Reala osatzen duten lankide eta taldekide guztiei”. Hunkituta zegoen baina hitzari eusteko indarra batu eta

IMANOL AGIRRETXE

**“Amestutako ibilbideari, amestutako bukaera, edo hobia seguraski...
Eskerrik asko benetan egun hauetan sentiarazi didazuen guztiagatik”**

zaletuei mezu hau bidali zien: “Eskerrik asko eman didazuen guztiarengatik. Benetan oso maitatua sentitu naiz. Hemen bizi izan dudana izugarria izan da eta ez dakizue noraino iritsi zaidan. Pasatzen dena pasatzen dela, hemen gauden guztion gainetik beti eduki presenten sentimendu bat dagoela. Ez dela edozein sentimendu, ez dela edozein kolore. Txuriurdina dela eta hori dela lotzen eta batzen gaituena. Eskerrik asko eta besarkada handi bana

denoi”. Bien bitartean, Realeko jarraitzaileek Hegan egin dugu, eskerrik asko Imagol zioen pankarta zabaldu zuten, golak ospatzeko orduan Imanolek egiten zuen keinuari erreferentzia eginez. Anoeta eraberrituko lehen gola sartu zuen. Benetako partida hasi zen ondoren eta Realak 1-2 galdu zuen Barcelonaren aurkako norgehiagokan.

Anoetatik Saizarra

Partidaren amaieran, omenaldia Anoetatik Saizar Sagardotegira igaro zen. Agirretxe Taldeak prestatutako afarian lagun ugari batu ziren; aurrelariaren etxeokak, lagunak eta jarraitzaileak.

Oriotarren sorpresa

Orioko gizonezkoen traineruak TKE Ligako estropada irabazi zuen larunbatean, Bermeoko uretan. Arraun taldeko ordezkari batzuk Saizar Sagar-

dotegiraino hurbildu ziren, irabazitako bandera Imanol Agirretxek astindu zezan. “Detalle ikaragarria Orioko alde-tik Agirretxeri gaur irabazitako bandera eskainiaz!”, Oskar Santamariak sare sozialen bidez zabaldu zuenez.

“Zoriontsu egin nauzue”

Egun hauek oso bereziak izan dira Imanol Agirretxerentzat. Facebook sare sozialean ipini zuen ohar honen bitartez, eskerrak eman dizkie alboan izan dituen guztiei: “Amestutako ibilbideari, amestutako bukaera, edo hobia seguras-ki... Eskerrik asko benetan egun hauetan sentiarazi didazuen guztiagatik, familia, lagunak, usurbildarrak, erre-alzaleak... Zoriontsu egin nauzue. Izan zaitezte gure etapa berri honen bidelagun! Besarkada bero bat eta mila aldiz eskerrik asko”.

‘Oreina’, eguneroko miserien erretratu

KOLDO ALMANDOZEK AGINAGAN GRABATU DU FILMAREN ZATIRIK HANDIENA

Iaz, garai honetan, film bat grabatzen aritu ziren Aginagan eta Usurbilgo hainbat tokitan. *Oreina* da aste haietako filmaketaren emaitza. Koldo Almandozen lan berria Donostiako Zinemaldian eskainiko dute lehen aldiz. Zine aretoetara irailaren 28an iritsiko da.

NOAUA! Film laburrak defendatzen pasa dituzu urteak eta urteak. *Sipo phantasma* pelikula esperimentalaren ondoren, *Oreina* film luzearekin zatoz orain. Amore eman al duzu azkenean?

Koldo Almandoz. Bai. Hori da bizitza, behin eta berriro amore ematea. *Oreina*-ren filmaketan aipatu ohi genuen, zinea amore ematearen artea dela. Azkenean, beti ari zara amore ematen. Kasu honetan, film hau egitea tokatu zait baina *Sipo Phantasma* eta *Oreina*-ren artean *Plágan* film laburra egin nuen. Datozenak ez dakit zer izango diren. Hala ere, *Oreina* egin eta gero ez pentsa zinegileago sentitzen naizenik.

Lehen aldiz, fikziozko film luze baten koordinadak jarraitu behar izan dituzu, aktore talde bat zuzendu... Nolakoa izan da esperientzia?

Laburretan ere antzeko lanetan aritu behar zara baina ez horrenbesteko garapena duten istorioetan eta ezta hain denbora luzean. Niretzat erronka bat izan da. Azken batean, pelikula “konbentzional bat” egiteko gai nintzela ere frogatu nahi nuen. Bestela, muturreko lanak egiten zabiltzanean, hori ere ohikoa bihurtzen da eta erosotasun batean erortzeko arriskua dago. Frogatu nahi nion nire buruari halako zerbait egiteko gai nintzela eta gogoz ekin nion. Askok ikasi dut pelikula hau egiten baina tentsio nabarmenarekin bizi



2017ko irailaren 11n hasi ziren filma grabatzen. Urtebetera itzuli ziren eta argazki hau atera zuten Aginagan.

KOLDO ALMANDOZ

“Film honetan gauzak ez dira ixten. Irekiak geratzen dira baina jendeak beldurra dio gauzak ez ulertzeari”

izan dut.

Elipsiak ugari dira. Jose Ramon (Patxi Biskert) kartzelan egon da baina ikusleari ez zaio azalpen askorik ematen. Urruntze agindu bat du Martinek (Ramon Agirre) baina, kasu honetan ere, ez da zergatia azaltzen. Esaten dena bezain esanguratsua da esaten ez dena. Ageriak baino esanguratsuagoa da ezkutukoa.

Nik ez nuke hobeto esango. Hala da. Hori zen asmoa. Horrelako proposamen batek ikuslearen partehartzea eskatzen du; bere intuizioa jokoan jarri, filmaren hariak bere kabuz lotu ditzan. Ez zait hainbeste interesatzen gauza guztien zergatiak azaltzea, edota bizitzan berebizikoak diren dramak erakustea. Pelikularen

asmoa da bizitzaren egunerokotasuna azaltzea.

Errealizazioa ere ideia horretara egokitu duzu. Isiltasuna beste elementu bat da, beste protagonista ozen bat.

Isiltasun horretan mezu asko daude. Khalil eta Joanaren arteko harremanean hitzik ez dago ia, baina gauza asko gertatzen dira.

Begira, zinema aretora joan eta tontotzat hartzen naute-

nean haserretu egiten naiz. Berdin antzerkian, artean edo literaturan. Askotan iruditzen zait hainbeste azpimarratzen dizkidatela gauzak ez didatela ikusle bezala partehartzen. Kasu honetan, filma saiatzen da partehartzaile izaten; horrek batzuentzat izan dezakeen arriskuarekin. Film honetan gauzak ez dira ixten. Irekiak geratzen dira eta jendeak beldurra dio gauzak ez ulertzeari.

‘Oreina’, Zinemaldian

Irailak 25 asteartea
09:30 Principal zinema aretoa (Prentsarako ikustaldia).

Irailak 25 asteartea
16:30 Kursaal, 2.

Irailak 26 asteazkena
20:30 Antiguo Berri, 6.

Irailak 27 osteguna
18:45 Trueba, 1.

Irailak 28 ostirala
Zine areto komertzialetan estreinatuko da.



Aginagako erribera ageri da filmaren kartel ofizialean.

“Zinea gezurra da baina nik purutasun sentsazioa transmititu nahi izan dut”

NOAUA! Dekoraturik behar ez duen parajea da Aginagakoa. Baten batek pentsatuko du paduran ageri den txalupa abandonatua zuek ipini duzuela propio. Kasu honetan, trama bezain garrantzitsua da ingurunea, ezta?

Koldo Almandoz. Lanbide Institutua Zubietakoa da, taberna Aginagakoa da eta gasolindegia berdin, pelikulako etxea eta txalupa ere bertan zeuden... Ez dugu zigarrokinik kendu errepidetik. Egiazkotasunaren alde, lokalizazioak ahalik eta gutxien ukitzen saiatu gara. Gazteak ageri diren auzoa ere Usurbilgoa da (Santuenea). Zinea gezurra da baina nik purutasun sentsazioa transmititu nahi izan dut.

Hain gertu egonik ere, askorentzat toki ezezaguna izango da Aginagako padura. Oso erakargarri ageri da pelikulan.

Bai, hala da. Paduraren izaera nabarmenduko nuke. Egu-



Patxi Biskert eta Laudad Ahmed Sal aktoreak, Aginagako paduran.

KOLDO ALMANDOZ

“Aginagako lokalizazioak ahalik eta gutxien ukitzen saiatu gara. Taberna eta gasolindegia, etxea eta txalupa... Ez dugu zigarrokinik kendu errepidetik”

nean bi marea jasaten ditu eta oso aldagarria da. Ederra da

hori, denbora gutxian ikusten duzulako nola aldatzen den. Lokatz eremua dena sekulako ur eremua bilakatuko da ordu gutxira. Horrek ere eragina du faunan eta giza jardueran. Bestetik, bertan badira animalia autoktonoak, badira animalia migratzaileak, badira kaiolatuak sentitzen direnak eta alde egin nahi dutenak....

Eta gizakiak.

Hori da. Gizakiak ere ekosistema horretako parte dira. Eskualde honetan, Euskal Herrian, Kantabrian edota Asturiasen ematen den paisaia mota bat dela esango nuke. Periferia bitxiak dira, non hiri erdigunetik bizitza basatienera oso distantzia laburra dagoen. Hiri erdigunearen ondoan dago industriagunea, industriagunearen alboan baserria, baserriaren aldamenean basoa...

“Aginagako parajeak jarri ninduen gidoia idaztera”

NOAUA! Paduran ez ezik, hiri edota herri guneen periferian mugitzen dira pertsonaiak. Oso gertu daude natura eta industriaguneak.

Koldo Almandoz. Eta zer nolako jendea bizi da bertan? Ba al dugu horren berri? Usurbilgo auzoa, adibidez (Santueneaz ari da). Gidoia idatzi genuenean ez genekien eta lokalizazio bila hurbildu ginean ikusi genuen jende pila bat zapiarekin jantzia. Familia saharauiarak, familia magrebtarrak bizi dira bertan.

Inguru honetan, belaunaldiz belaunaldi baserria izan dutenen seme-alabak etorri berri direnen seme-alabekin jokatzeko dute orain saskiba-



Ramon Agirre eta Tania de la Cruz aktoreak, Usurbilgo tren geltokian.

loian.

Laulad Ahmed aktorea bera saharauiarra da. 8 urterekin etorri zen Donostiara eta ikastolan ikasi zuen. Hark ere bizi du kontraste hori. Hemengoak sentitzen da baina... Pelikulan gertatzen dena gertatu izan

zaigu elkarrizketa batzuetan. Kazetariak galdetu izan diote, *pero tu sabes euskara?* Ostia, pelikulan euskaraz mintzo da. Baina beltzarana denez... Pelikula honekin erakutsi nahi nuen jende hori jada hemen dagoela.

Gidoiak eraman zintuen Aginagara edo Aginagako padurak jarri zintuen gidoia idaztera?

Bigarrenetik du gehiago. Errepide horretan gora eta behera ibiltzen nintzen autoan eta ideia horrela sortu zitzaidan. Etxe batean fijatu nintzen. Bitan banatuta zegoen. Erdi bat oso zaindua zegoen eta beste erdia zeharo hondatuta. “Zer jende klase bizi da hemen?”, nire artean, teilatua konponitzeko adostasunera ez iristeko. Bestetik, istorio bat kontatu zidaten, bertan bizi zen tipo batena. Hari horiek denak lotuz hasi nintzen gidoia idazten. Beraz, esan daiteke tokiak eraman ninduela gidoia idaztera.

“Istorio minimoen filma da hau”

NOAUA! Ez dakigu zerk eragin da apurtu zen bi anaien arteko harremana. Iraganaren zama igartzen zaie Joxe Ramoni eta Martini.

Koldo Almandoz. Bi anaiak dira adinduak. Bat kartzelan egon zen eta besteak atzerrira alde egin zuen. Biak dira furtiboak. Bata ehizean eta besteak ez du bere sexualitatea ondo onartzen... Dena den, bi anaien rolak ez nituen gehiegi markatu nahi. Nor den hobia eta nor den gaiztoagoa zehaztea ez zitzaidan interesatzen.

Kontrastean, Khalil gaztearen jakinmina dago. Iraganera begira jarriko ditu bi anaiak.

Azken finean, Khalilek abantaila hori du: bizitza osoa du deskubritzeko. Gainera, berak ez du iraganaren zamarik ezta zaindu beharreko baserririk. Inozentzia moduko bat mantentzen du.

Khalil dago pelikulako mui-nean edo erdigunean. Etorkinari ikusgarritasuna ematen zaio baina gurasokeririk gabe. Errealitatearen parte delako jada. Komunikabideetan irakurri berri dugu, “Donostiako autobus geltokian 40 etorkin azaldu dira”. Pelikulako aktorearen



Iraia Elias aktoreak Oria erriberako guardaren papera egiten du.

KOLDO ALMANDOZ

“Bi anaien rolak ez nituen gehiegi markatu nahi.

Nor den hobia eta nor den gaiztoagoa zehaztea ez zitzaidan interesatzen”

kasua da hori. Saharatik 8 urte-ekin etorri zen eta hemen geratu zen. Orio inguruan adibidez, badira dagoeneko bi edo hiru belaunaldi magrebier. Bertan bizi dira, euskaldunak direnak. Eta hori dena oraindik pasa ez balitz bezala jokatzeko dugu.

Gure paisaia artistikoan ez dira gehiegi agertu oraindik.

Gure ikonografian, gure euskaldun izateko moduan ez ditu-

gu barneratu. Hein batera arte normala da, baina hasi beharko ginateke horiek ere (gure iruditerian) barneratzen. Dagoeneko bada errealitate bat.

Ezkutukoa bistaratzea, hori izango da guardaren funtzioa. Sagua eta katua bezala ibiliko dira bera eta Jose Ramon.

Bai, zelatan dabilen hori da guarda. Harrapakarien harrapakaria, nolabait esanda. Normaltasun bat ezarri nahi nuen. Hau ez da western bat. Guardarena lanbide bat da eta emakume horrek lan hori ahalik eta ondoen egin nahi du. Badaki zein den jokia. Paduraren inguruan beste pertsonaia gehiago ere egon zitezkeen baina azkenean hauek geratu dira. Istorio minimoen pelikula da hau.

‘Dantza’ ikusteko lehen aukerak

Izenburuak dioen bezala, Telmo Esnalek zuzendu duen pelikulan dantza da mintzaira nagusi eta bakarra. Donostiako Zinemaldiko sail nagusian aurkeztuko dute filma. Zinema areto komertzialetara ordea, urte bukaeran iritsiko da.

Orbeldi Dantza Taldearen parte hartzea

Euskal Herriko dantza talde ezberdinek hartu dute parte. Tartean, Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldeak.

Irailak 23 igandea

22:00 Principal (Pentsarako ikustaldia).

Irailak 24 astelehena

22:15 Victoria Eugenia.

Irailak 25 asteartea

20:30 Principe, 7.

Irailak 26 asteazkena

16:00 Principe, 7.

Irailak 29 larunbata

18:30 Antiguo Berri, 2.



Orbeldi Dantza Taldekoak, filmaren grabaketa egunean.

“Oso ondo egon ginen Aginaga aldean”

NOAUA! Aginagan ibili zineten grabaketak egiten. Nolakoa izan zen esperientzia?

Koldo Almandoz. Hasi ginenean beldur nintzen, zertan genbiltzan galdezka etorriko ote ziren. Baina ez dugu inolako arazorik izan.

Kazetarientzako proiektio bat egin genuen iraila hasieran Donostian, eta filma ikustera etorri ziren Sekañakoak eta Etxebekoak. Harreman naturala izan dugu, jende naturala delako.



Sariako hezegunea. Oreina-n, trama bera bezain garrantzitsua da ingurunea.

Inguruko angularien laguntza izan genuen, biberotako jendeari angulak eskatu eta arazorik gabe utzi zizkiguten, txalupak eskatu eta berdin,

terrenoekin gauza bera... Oso tratu ona izan genuen denekin.

Donostialdean ordea, kontrakoa gertatu zitzaigun. Do-

nostian grabatzen aritu ginenean batzuk nahita planoan sartzen ziren gure lana izorratzera, besteak kexu...

Aginagan berriz, dena naturalagoa izan zen. Egun batean, Mapil aldean grabatzen genbiltzala, bapatean argia piztu zuten. Mapilekoengana joan eta aizue, barkatu, argiak piztu dituzue eta itzaliko al dituzue mesedez? “Bai motel!”. Argiak itzali eta segi. Egia esan, oso ondo egon ginen Aginaga aldean.

#PRAKTIKATUetaBIZI



MINTZATALDEAK - GURASOLAGUN - IKASTAROAK ETA TAILERRAK - TXANGOAK - MINTZODROMOAK

USURBILGO Mintzalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo, euskalduna izanda, euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

Mintzataldeak. 5-6 lagunekoko taldeetan biltzen gara euskaraz egiteko, disponibilitate, adin eta zaletasunen arabera.

Gurasolagun. Familientzako mintzataldeak dira; jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, helduak eta haurrak batera.

Ekintza osagarriak antolatzen ditugu, besteak beste; txangoak, tailerrak, mintzodromoak... Euskaraz egin eta lagun berriak ezagutuko dituzu.

eta guztia DOHAINIK

Zatoz gurekin!

607 609 379 / 943 360 321

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aeek.eus

Mintzalagunak Gara | Facebook

Sustatzaileak



Usurbilgo Udala

aeek

Etumeta Euskaltegia

noa.ua

praktikatu
mintzatu eta
lagundu



Gazte usurbildarrak ere erraustegia geratzera



“Euskal Herrian bizi nahi dugulako, maskarilak kendu eta erraustegia geldituko dugu”.

Utzi bizitzak kutsatzeari. Erraustegia gelditze-ra goaz! goiburupean eta talde argazki honekin bat egin dute gazte usurbildarrek ere, irailaren 20rako Ernai gazte erakundeak Lasarten deitu duen manifestazioarekin.

Irailaren 20an eta 21ean hain zuzen, erraustegiak sustatzen dituzten enpresen Europako konfederazioak kongresua egingo du Bilbon. Irailaren 19rako 20:00etan Guggenheim museo atarian elkarretaratzea deitu dute Erraustetaren Aurkako Mugimenduak eta Zero Zabor Bizkaian Elkargueak.

MANIFESTAZIOA

“Irailaren 20an osteguna, Ernai gazte taldeak manifestazioa antolatu du Lasarte-Orian. 10:30ean abiatuko dira Okendo plazatik”

Ikasleei eta gazteria osoari gonbitea

Biharamunean, aipatu moduan, erraustetaren zero gutetik gertuen dagoen udalerrietako batean, Lasarte-Orian alegia, Ernai gazte erakundeak, goizeko 10:30ean Okendo plazatik abiatuta herria zeharkatuko duen manifestazioa.

Ikasleak eta gazteria oro har, mobilizatzen deitu dute. “Dei egiten diegu inguruko herrietan bizi diren ikasle zein gazteei bat egin dezaten deialdi honekin eta etor daitezten proiektu txikitzaile honekiko aurkakotasuna adieraztera”.

Hamaika arrazoi daude horretarako, Ernaik argitaratutako emandako adierazpenaren arabera. “Erraustegia egungo sistema kapitalista heteropatriarkalaren ikonoa da, gutxi batzuen etekin ekonomikoa jartzen baitu gu guztion bizitzaren gainetik”. Hotzikara eragiten duten datuak aipatu ditu Ernaik. Erraustegia “herri-

tarron hitzari entzungor egin eta gu guztiok heriotzera kondenatuko gaituen proiektua” dela nabarmentzen dute, “hilkortasun tasa %13 eta minbizikasuak % 3,5” igoko direla ohartarazten baitute inguru hurbilean. Horregatik, “alferrikako azpiegitura kutsakor eta garestiak eraikitzeari utzi eta beste bizimodu baten aldeko apustua egin beharra” dagoela dio Ernaik. Eta horretara doaz; “Euskal Herrian bizi nahi dugulako, maskarilak kendu eta erraustegia geldituko dugu; zuen inperioa hankaz gora jartzeko lehen pieza botako dugu. Gurekin jai duzue!”.

“Zuekin gaude”

Joan den maiatzean, Munduko Turismo Erakundea Donostian egitekoa zen biltzarren testuinguruan, protesta sozialaren astea deitu zuen Bizitza Da Handiena mugimenduak. Aste horren harira auziperatu dituzten lagunei elkartzuna adierazi zieten aurreko astean, Tabakalera atarian. Bi zarauztar Donostian epaitzekoak ziren aste honetan eta elkarretaratzea deitu zuten epaitegi atarian, “Turismoaren Mundu

Erakundea Donostiara ekarri zutenean, aurrean protesta erabat baketsua eta legitimoa egitean atxilotu zituzten bi lagunei babesa adierazteko”. Salatu dutenez, auziperatuek jakinarazi dutenez, “erabat faltsuak diren akusazioak egin dizkie Ertzaintzak, tartean, lesioak eragitea agenteei”. Gaineratu dutenez, “bi lagunak atxilotu zituzten polizia bultzaka hasi eta lurre-ra bota zituztenean. Lotsa gutxi izan behar da ezer egin ez zu-

ten bi laguni halako akusazioak dohainik egitea. Zuekin gaude”, adierazi zieten.

Bizitza Da Handiena mugimenduko 60tik gorako herri eragileek erakundeei adierazi nahi diete “Herria gu gara, eta antolatuta gaude. Gutako inori eraso egiten badiozue, gutako guztiok erasotuko gaituzue, herria erasotuko duzue. Zuen bulegoetan herritarrak kontuan hartu gabe hartzen dituzuen erabakiak gure kon-

tra doaz zuzenean, eta guk, bulegoak baino, plazak nahiago ditugu. Bizitza dugu aldarri eta horren alde egingo dugu”.

Usain txarrak etenik ez

Sare sozialen bidez nahiz kalean, oporren amaierarekin itzuli da usain txarra. Bai Atxegalde partean, nahiz Kaxkoan ere usain txarrekin dagoen arazoak kexu agertu da hainbat herritar berriro ere, azken asteotan.

Iraultza txikien kanpaldia Zubietan

Bestelako Euskal Herria amesten duten herritar eta herri mugimenduan topalekuan bilakatuko da Zubietan asteburuan, Lurralde Askea kolektiboak antolatu duen Iraultza Txikien Kanpaldia-ri esker. Bertaratzen direnek elkarrekin hausnartu, konspiratu, alternatibak praktikan jarri, konplizitateak eraiki edota egin daitekeena irudikatzeko aukera izango dute.

Zubietakoa, “eremu antipatriarkala izango da, antikapitalista, komunitarioa, autoeratu eta autokritikoa, borrokalaria eta alaia”. Egitarau oparoa osatu dute. “Interesa dutenentzat, denoi eragiten diguten eta patxadaz lantzeko aukera gutxi izaten dugun gaiez hausnartzeko zortzi saio antolatu ditugu, luxuzko hizlari eta eragileekin”, iragarri dute antolatzaileek.

Gipuzkoa Zutik mugimendua iganderako antolaturiko buzo zurien martxak borobilduko du asteburua, erakundeetatik erraustegia gelditu zutenei, ekitaldi bidez aitortza publikoa egin ostean. Usurbilen



Asteburuari begira, haur jolasak, kontzertuak, mahainguruak eta ikuskizunak antolatu dituzte.

elkarrekin joateko hitzordua finkatu du Erraustegiaren Aurkako Taldeak. Bestela, garraio publikoa baliatzeko deia egin dute.

Adin tarte guztientzat

Adin tarte guztietako herritarrei zuzenduriko kanpaldia izango da. Haur jolasak, kontzertu eta ikuskizunak antolatu dituzte. Elikadura burujabetza ipar duen herri jantokia, prezio herrikoiekin. Hizkuntzari dagokionez, “euskara izango da hizkuntza lehenetsia, eta saio guztietan itzulpengintza bermatuta izango dugu euskaraz, gatzelaniaz eta frantsesez,

bakoitzak erosoan duen hizkuntzan hitz egin dezakeela bermatzeko”.

Elkarlanean

48 orduko kanpaldia izango da. Horregatik, “dei egiten dugu lotarako zakua, kanpina, musika tresnak eta bizipoza ekartzera. Esan bezala, kanpaldia Zubietan herrian bertan izango da eta belardiak antolatuko ditugu lo egiteko kanpingak jartzeko. Furgonetetan zatoztenontzat, aparkaleku berezi bat prestatuko dugu. Dutzak eta abar ere izango ditugu”, ohartarazi dute.

Elkarlanean antolatu du

